



«LURDEIA, TURISMO-OSTATU JASANGARRIA»



ENTITATE SUSTATZAILEA

LURKOI - Eraldaketarako eta nekazaritza ekologikoko nekazaritza-sozietatea



Kokapena

Artike auzoa 60 · 48370 Bermeo (Bizkaia)



Denbora-erreferentzia

2018ko abendua



EKARPEN NAGUSIA

Turismo jasangarria eta nekazaritza ekologikoa

OINARRIZKO DATUAK

LURDEIA landetxe ekologikoa da, eta Bermeon dago, Urdaibai Biosfera Erreserban, Bizkaian.

Honako hau da **LURDEI**aren funtsa: Ama Lurrarekin komunikatzea gune jasangarri batean, nekazaritza-jarduera ekologikoan errotuta.

Ostatuan 8 gela atsegin eskaintzen dira, turistek natura betean babesa topatzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten, modu kontziente eta jasangarrian.



AURREKARIAK:

HISTORIA

Josu, Alberto, Tomas, Rober eta Iñaki familia-eredu berezi bateko kideak dira; kezka berak dituzte, eta nekazaritzarekiko maitasunak eta natura zaintzeko nahiak bildu zituen duela 36 urte, beren bizi-proiektuari forma emateko leku baten bila.

Barneko iparrorrazak gidatuta, hara-hona ibili ziren Euskadin zehar, leku magiko bat topatu zuten arte; gaur egun **LURKOI** du izena leku horrek, «**lurrari atxikia**».



LURKOI - Eraldaketarako eta nekazaritza ekologikoko nekazaritza-sozietatea proiektuaren xedea da nekazaritza ekologikoa sustatzea, **LURDEIA** ostatuaren bidez esperientzia aparta bizitzeko aukera emanez bezeroei. Proiektu hau bere gurasoei esker, Agapita eta Manolo, izan da posiblea. Haien laguntza, jakinduria eta esperientzia funtsezkoak izan ziren eta gaur egun memoria eta tradizioaren lotura gisa jarraitzen du.

LURDEIA ostatu ekologikoa da, eta **2008az** geroztik egon da abian. **Josuk, Albertok, Tomasek, Roberrek eta Iñakik** beren eskuekin eraiki zuten % 80an, jasangarritasuna ardatz hartuta, eta eraikuntzan ingurumen-irizpideetan oinarrituta, adibidez, energia-efizientzian.

LURDEIA ETA EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA

LURDEIA izan zen EAEn Europako Etiketa Ekologikoa lortu zuen **hirugarren ostatua**; 2016an lortu zuen.

Gaur egun, sektore turistikoak jasangarritasunaren alde egindako apustuaren erakusle, EAeko 35 ostatuk dute Europako Etiketa Ekologikoa, eta bezeroak esperientzia jasangarri eta ingurumenarekiko errespetuzkoa izatera animatzen dituzte.

Europako Etiketa Ekologikoa eskuratzeko behar diren hautazko irizpideen ataleko 26 puntuetatik, **41 puntu lortu zituen LURDEIAK**. Hain zuzen ere, gaur egun arte puntuazio onena lortu duen ostatua da; horrek agerian uzten du arauak betetzeko eta ingurumena zaintzeko konpromiso handia duela.



ES-EU/051/00010

DESKRIBAPENA:

EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOAREN ESKAKIZUNAK

EUROPAKO BATZORDEAREN 2017ko urtarrilaren 25eko 2017/175 (EB) ERABAKIAN daude araututa ostatu turistikoek Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko bete beharreko irizpideak. Erabaki horri jarraikiz, ostatuak honako baldintza hauek bete behar ditu Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko:

- Ingurumen-alorreko legedia betetzea, bai eta dagokion sektoreko eta lan-esparruko legedia ere.
- Zenbait arlotan (kudeaketa orokorra, energia, ura, hondakinak eta hondakin-urak eta beste zenbait irizpide, hala nola garraio jasangarria) xedatutako nahitaezko 22 irizpideak betetzea
- eta gutxieneko puntuazio bat lortzea hautazko irizpide multzo batean; horiek aldatu egiten dira ostatuak eskaintzen dituen zerbitzuen arabera.

LURDEIAK, ingurumena zaintzea eta klima-aldaketa prebenitzea oso garrantzitsuak direla kontuan hartuta, Europako Etiketa Ekologikoaren aldeko apustua egin zuen, ostatu turistiko jasangarri izatea ziurtatzeko. Horretarako, **ingurumen-kudeaketako sistema bat ezarri zuen, eta jardueraren ingurumen-kudeaketa eta -portaera kontrolatu eta hobetu ahal izan zuen.**

Behin irizpide bakoitza justifikatzeko dokumentazioa prestatuta, irizpideak betetzen diren aztertzeaz arduratzen den organoaren bisita jaso zuten ostatuan bertan. Horren ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak, organo eskuduna izaki, Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa eman zion.

Gainera, aipatu behar da, Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko prozesua gauzatzeaz gain, **Energia Efizientiaren Ziurtagiria** ere lortu zuela **LURDEIAK**, gehieneko kalifikazio energetikoarekin (A) lortu ere.

LURDEIAREN JARDUNBIDE EGOKI JASANGARRIAK

Jarraian, **LURDEIAren** jasangarritasuneko jardunbide egokietako batzuk azalduko ditugu, ekonomia zirkularra sustatzen eta klima-aldaketa prebenitzen laguntzen dutenak:



- Ur bero sanitarioa eta berokuntza lortzeko, **biomasa (pellet)** erabiltzen da, inguruko basoetako zura, bai eta huts-hodiak dituzten eguzki-panel termikoak ere.

- Eraikina **zoru bero-emaileen** bidez berotzen da, sistema hori **efizienteagoa** baita.



- Eguzki-panel fotovoltaikoak** erabiltzen dira elektrizitatea sortzeko, eta kanpotik kontsumitu beharreko elektrizitatea **energia-iturri berriztagarrietakoa da % 100ean**.

<https://www.youtube.com/watch?v=1BoTXNVgf1w&feature=youtu.be>

- Argiztapen osoa **led lanparen** bidez dago eginda, eta **presentzia-sentsoreak** daude kanpoan eta igarobideetan, kontsumoa optimizatzeko.



- Txorrota eta dutxa guztiek aireztagailuak dituzte jarrita; horiei esker, **% 60an ere murriztu daiteke ur-kontsumoa**. Gainera, komunetako tangek deskarga bikoitzerako gailuak dituzte.



- Ur-efizientziako garbigailuak** daude; kilogramo bat arropako 7 litro ur baino gutxiago kontsumitzen dute.



- Ostatuaren kudeaketan, hondakin ez biodegradagarri ahalik eta gutxien sortzeko ahalegina egiten da. Halere sortzen diren hondakinak **sailkatu egiten dira**, papera, plastikoak, ontziak, birziklatzeko olioak, etab., behar bezala kudeatu ahal izateko, eta hondakin organikoekin **konposta** egiten da.

- Garbiketarako eta arropak garbitzeko produktuak eta bainurako gelak ekologikoak dira**, Ecocert edo Ecolabel ziurtagiriak dituztenak.



- Auto elektrikoek kargaleku bat ere badago.

LURDEIA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Honako hau da **LURDEIAren** funtsa: Ama Lurrarekin komunikatzea gune jasangarri batean, **nekazaritza-jarduera ekologikoan oinarrituta**. Nekazaritza ekologikoaren bidez, **LURDEIAren** xedea da ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako ekoizpen-sistemak sortzea; besteak beste, ongarri organikoak erabiliz lurraren produktibitateari eusteko, izurriteak erregulatuz eta beti kontuan hartuta natura izaki biziduna dela, eta zaindu egin behar dela. Bertako barazki eta fruitu ekologikoak eskaintzen zaizkie ostatuko bezeroei, eta azaltzen diete oso garrantzitsua dela horiek modu ekologikoan haztea, ongarri kimikorik erabili gabe. Gosaritarako, bertan ekoiztutako elikagai ekologikoak eskaintzen dira; horrek ere puntuak eman dizkio ostatuari Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko prozesuan.



EMAITZAK:

Europako Etiketa Ekologikoa lortzeaz gainera, **LURDEIAK** beste hainbat sari eta aitorten jaso ditu; horrek guztiak agerian uzten du ingurumena zaintzea eta kalitatezko zerbitzua ematea eta bezeroen onarpena lortzea erabat bateragarriak direla.

TripAdvisor guneak emandako sariak:

- 2013az geroztik, Travellers Choice saria eman die TripAdvisor guneak.
- 2019an, TripAdvisor bidaia-bilatzailleak kalitatea-prezioa erlazio oneneko (merkea) munduko 1. ostatua, Europako 1.a eta Espainiako 1.a izendatu zuen Bermeoko Lurdeia.
- Eta, 2020an, Espainiako 2.a eta Europako 9.a, Hotel Txikien kategorian, eta, gainera, Espainiako 2.a, Europako 4.a eta munduko 18.a Hotel Erromantikoen kategorian.
- Platinozko ekoliderraren saria ere badute, eko-hotelei ematen zaizkienetan gorena.



INFORMAZIO KONTAKTUA	GEHIAGO	JASOTZEKO	EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA- ORGANO ESKUDUNA
ALBERTO AGUIRREBEITIA ETXEBARRIA Lurkoi SATeko bazkidea 666 477 665 lurdeia@lurdeia.com			INGURUMEN SAILBURUORDETZA. EUSKO JAURLARITZA 944230743 Etiqueta.ecologica@ihobe.eus